


BOCCIA

- ✓ Grezia klasikoan sortu zen. Europa iparraldeko herrialdeek eta britainiarrek berreskuratu zuten.
- ✓ Ezintasun fisikoa dutenentzat egokitutako joko tradizionala da.
- ✓ Aro modernoko lehenengo lehiaketa Danimarkan jokatu zen 1980.
- ✓ Petanka frantziarraren antza dauka, baina bere berezitasunekin.
- ✓ Europa, Canada, Japonia, Korea, Kuwait, eta beste hainbat herrialdetan praktikatzen da.
- ✓ Estatu Espainiarrean lehenengo lehiaketa Ourensen (Galizia) jokatu zen 1980. urtean, Aspace-k antolatuta.

JOKOAREN OSAGAIAK

- ✓ Jokalariak: garun paralisia duten jokalarientzako kirol espezifikoa da.
Bi kategoria ezberdinetan banatuta dago:
 - edozein kirol jarduera edo funtzio burutzeko gurpildun aulkiaren beharra duten pertsonak;
 - eta ibiltzeko gai direnak (laguntzarik gabe nahiz nolabaiteko laguntza erabiliz).
- ✓ Antolakuntzak mahai tekniko bat osatzen du: sendagile, fisioterapeuta, eta kirol espezialista banarekin.
- ✓ Hiru epaile eta kontrolatzaile daude. Bere lanerako prestaketa berezia jasotzen dute.

JOKO ZELAIA



KIROLARIAK ETA SAILKAPEN FUNTZIONALA

Neurketa batean **beti bi talde** egongo dira. Alde bakoitza: pertsona batez (banakako neurketetan), bi pertsonaz (binakako neurketetan) edo hiru pertsonaz (taldeko neurketetan) osaturik egongo da.

Garun Paralisi oso sakona duten kirolariei zuzenduta dago kirol hau.

Kategoria desberdinak daude funtzionaltasunaren

arabera:

BC1	<p>Eskuarekin jokatzeko dute. Pilota hartzeko eta botatzeko zailtasunak izaten dituzte.</p> <p>BI maila bereizten dira:</p> <p>CP1: aulki elektrikoan edo mugitzeko laguntzarekin dabilzanak sartzen dira.</p> <p>CP2 hankak: hankarekin jaurtitzen dute.</p>
BC2	<p>Eskuarekin jaurtitzen dute. BC1eko kirolariek baino arazo gutxiago daukate jaurtitzekoan.</p>
BC3	<p>Afekzio handia daukaten pertsonak dira. Aulki elektrikoaren edo laguntzaile baten beharra daukate. Ezin dute eskuarekin jaurtiketa egin. Horretarako material baten laguntza izaten dute: arrapalaren laguntza.</p>
BC4	<p>Lau gorputz adarretan disfuntzio garrantzitsuak dituzten kirolariak. Oinarrian ez daukate garun paralisirik.</p>

JOKOA

✓ Materiala: 13 bola daude; sei gorri, sei urdin eta bat zuria edo "diana"

✓ Jolas motak:

Banaka: bi sexutakoa, arrapalarekin edo gabe.

Taldeka: bi sexutakoa. Talde bakoitzak 1 mailako jokalaria bat eduki behar du.

✓ Partida bakoitza lau partzialetan banatzen da banaka bada, eta seitan taldeka izan ezkerro.

✓ Banakako partidetan jokalaria bakoitzak bi partzial hasten ditu eta taldekoetan, jokalaria bakoitzak partzial bati ematen dio hasiera.

JOKOA

- ✓ Banakako partidetan jokalaria bakoitzak kolore bateko 6 bola jaurtitzen ditu, eta taldeka diren partidetan jokalaria bakoitza bi bolaren jabe da
- ✓ Talde bakoitzean kapitain bat dago, eta zein jokalarik jaurtiko duen esaten du
- ✓ Partidaren hasieran jaurtitzen den bola zuriaren atzean koloreko bola bat jaurtitzen da. Bola hau "diana" jaurti duen jokalaria berak jaurtitzen du.

JOKOA

- ✓ Bola zuria joko zelaitik kanpora bultzatu ezkerro, gurutzean ipiniko da
- ✓ Bola zuria ez bada "V" marratik bestaldera pasatzen, edo joko zelaitik kanpora bota ezkerro, arerioak jaurtiko du
- ✓ Behin jokoa hasita bolak "diana"-tik urrutien dituen jokalaria edo taldeak jaurtitzen du beti
- ✓ "diana"-tik beste taldeko bola bat baino gertuago dagoen gure taldeko bola bakoitzak puntu bat balio du. Berdinketak egon daitezke.

Pilota zuria jaurtitzen duenak sartu egiten badu, bere koloreko pilota bat ere jaurtiko du jarraian.

Jarraian beste taldeak jaurtiko du:

a.- Pilota zuritik aurkakoen pilota baino gertuago kokatu arte, edo

b.- Pilota guztiak jaurti arte

Betiere pilota zuritik urrutien dagoen taldeari tokatuko zaio jaurtitzea:

a.- Egoera hori aldatu arte, edo

b.- Bere pilota guztiak jaurti arte

Puntuak:

Galdu duen taldeko pilota zuritik gertuen dagoen pilota abiapuntutzat hartuko da. Pilota zuritik aipatutako pilota baino gertuago kokatutako pilota bakoitzak puntu bat suposatuko du.

Partzial bakoitza bukatzen denean emaitza apuntatzen da. Gero partzial guztien emaitzen batuketa egiten da irabazlea jakin arte.

Berdinketa balego, beste partzial bat jokatuko litzateke, pilota zuria erdian kokatuz, eta zozketatuz zein taldek jaurtitzen duen lehenengo pilota.

Laguntzaileak

Aulkia beren kabuz mugitu ezin dutenek laguntzaile bat izango dute. Laguntzaile hori kanpoan kokatuko da kirolariak bere laguntza eskatu arte:

- Aulkia mugitzen laguntzeko.
- Pilotak emateko.

Arrapalarekin jaurtitzen dutenek ere laguntzaile bat beharko dute. Horiek beti jokoari bizkarra ematen arituko dira, eta boxaren barruan.

BOCCIAK ERAGITEN DITUEN EKARPEN ETA ONURAK

Boccian jokatu ahal izateko ezinbestekoa da jarrera egoki bat lantzea, eta jarrera hori egoera funtzional zehatz batetara egokitzea: zerbait hartu, askatu, egoera orokor bat begiratu...

Bestalde, tonuaren eta mugimenduen kontrola lortzen laguntzen du. Era berean, lateralitatea finkatzen laguntzen du, eta baita zuzen bideratzen ere.

Honek pertzepziorako oinarria hobetzen laguntzen du, eta ondorioz, baita espazioa eta denborazko nozioak bereganatzen ere.

Indarraren funtzionalitatea eta erabilgarri dituzten atalen gehienezko erabilpen funtzionala lortzen laguntzen du.

Komunikazio eremuan ere ekarpen interesgarriak ditu.

Laguntzailearekin komunikazioa garbia izan behar da. Bestea ulertu behar duzu, eta zeu, ulertzeko moduan azaldu. Adierazpen garbia lortzen laguntzen du.

Bukatzeko, **erabakiak hartzeko** egoeretan jartzen dira jokalaria, eta norbere buruarekiko segurtasuna bultzatzen du honek.

TREBATZEKO JARDUERA ETA JOLASAK